

In esse

In esse

Izanean.

Erdi Aroko esaldia. Zerbait izan, izanean egon.

In facto

Eginda.

Eskolastikan erabiltzen den esaldia. Zerbait bere zati eraikitzaile guztiak berekin dituela osoki gauzen izatean dagoenean, in facto dagoela esaten da. Koadroa pintaturik dagoenean, pintura in facto buruturik dago.

In fieri

Eginean.

Eskolastikan erabiltzen den esaldia. Zerbait izaten hasi bai baina oraindik bukatzeko dagoenean, in fieri dagoela esan ohi da. Eginbidean dagoena da. Honela, pintatzailea bastidorea gertutzen ari denean, pintura in fieri dago.

In intellectu

Adimenean.

Erdi Aroko esaldia. Adimenean izan, bereziki ideia orokor gisa, abstrakzio bidez lortua.

In re

Gauzaren baitan.

Erdi Aroko esaldia. Izpiritutik at gauzaren baitan, hots, materialian egiazki dagoen zerbait.

Indiar filosofia

Ez da filosofi sistema edo eskola konkreturen bat, eta bai Indian sortu eta landuriko filosofi eskola guztiek funtsean duten ezaugarri-multzoa.

"Liburuaren filosofia" da indiarra: hau da, liburu sakratuak daude horien oinarrian, arauemalle bezala. Horien interpretazio desberdinetik sortzen eta finkatzen dira eskola desberdinak. Indiar tradizioaren funtsean, *Vedas izeneko liburu sakratuak daude. Hauen azken parteak, berriz, *Vedanta edo *Upanishad izeneko liburuak dira. Hauek dira India-ko filosofiazko tradizio-korrante nagusien sorburua: *Hinduismoarena, alegia. Beste bi korrante nagusiek, *Budismoak eta *Jainismoak alegia, beren liburu sakratuak dituzte, eta Vedismo-Hinduismoaren kontra bezala sortzen dira erlijio- eta filosofi tradizio horiek.

Indiar filosofia ez da, beraz, Hinduismoarekin berdindu behar. Hala ere, Tradizio

hauxe da garrantzikoena eta ia erabat indiar historian nabarmentzen dena; batez ere, Budismoa, Asia-ko beste Herrietara hedatzen zen arabera, India-n bertan erdigaldu egin zelako, eta Jainismoak, berriz, jarraitzaile askorik bereganatu ez duelako. Dena dela, indiar filosofiaz hitzegitean hiru tradizio handi hauek batean eta berezirik hartzen dira.

Hainbat eskolatan banatzen da indiar filosofia. Vedas-en arauemalletza onartzen dutenak ortodoxoak (*astika) deitzen dira; besteak, berriz, heterodoxoak (*nastika). Ortodoxoak sei eskolatan banatu ohi dira, baina binakatuz: *Yoga/*Sankhya; *Nyaya/*Vaisesika; *Minansa/Vedanta. Teoriaz, bikoteetako aurrenak alderdi praktikoa nabarmenduko luke eta bigarrenak alderdi teorikoa, baina bereizkuntza hau ez da erabat betetzen. Vedanta eskola, bere aldetik, bi azpieskola garrantzirikotan banatzen da: Dvaita edo dualista eta *Advaita edo ez-dualista.

Eskola heterodoxoetan garrantzikoena hiru dira: Budismoa, Jainismoa eta *Txarvaka edo eskola materialista. Budismoa bera bi adar handitan banatzen da: Hinayana eta Mahayana; hauek, nahiz eta gehienbat erlijiozko mugimenduak izan, beren filosofiazko bereizgarriak ere badituzte.

Eskola tradizional guzti hauek gaur arte bizi dira, txarvaka ezik. India-ko filosofi historiaren lerro handiak erlijio-mugimenduen eta irakatsien arteko tirabiren, borroken eta elkarrekiko eraginaren arabera marra daitezke. Historia erlijiozko-filosofiazko horren lehen hastapenak, berriz, K.a. 2000. urte ingurutik abiatuz, bertako elementu ez-ariarren eta ariarrek kanpotik ekarritakoen topaketan mamitzen dira: munduarekiko jarrera baikorra eta ezkorra aurrez aurre gertatzen dira hemen.

Erlijio vediko errituala (Veda bilduma zaharretan oinarritzen dena) erritualista bihurtzen da apezariaren eskuetan eta, maila batez behintzat, jatorrizko vedismoari brahmanismoa nagusitzen zaio.

Inguru honetan sortzen dira hainbat korrante materialista, determinista eta akzidentalista, gero nolabait beste eskola tradizionalak irentsiko dituztenak. Hain zuzen ere, Jainismoa (K.a. VIII. mendean) eta Budismoa (K.a. VI.ean) joera horiek gainditzeko eta Brahmanismoaren erritualkeria mekanikoaren kontrako borrokan sortzen dira.

Baina Vedismoko tradizio ortodoxoak, bere aldetik, zuzperraldia izaten du, Brahmanismoaren beraren erlijiozko berrikuntzari eraginez eta filosofi eskola ortodoxo desberdinei oinarriak jarritz, Upanishad liburu

klasikoen bidez (VIII-IV. mendeen bitartean). Garai honetan eratzten dira India-ko beste filosofi eskolak ere.

Budismo barruko bi korronte handiak:

Hinayana edo "Ibilgailu Txikia" eta Mahayana edo "Ibilgailu Handia", kristau-aroarekin bateratsu bereizten dira. K.o. IV. mendetik hasita, berriz, Tantrismoa agertzen da, Budismoaren eta Hinduismoaren erakarkin bezala.

Islamismoa India-ra sartuz batera, Budismoa suntsitu egiten da eta Ekialdera eta Hegoaldera zabaltzen. Gerotzik Hinduismoaren eta Islamismoaren elkarrekiko eragina sakonduz doa, Jainismoa bere tradizioari estu atxekitzen zaion bitartean.

India-ko filosofi historia garaika banatzeko modu desberdinak erabili ohi dituzte autoreek. The Encyclopedia of Philosophy hiztegiak (Paul Edwards, Zuzendaria) lautan banatzen du: a) K.a. 800-400, edo eskolen oinarriko idazkiak eratzten direnekoa; b) K.a. 400-K.o. 600 bitartekoa, edo *sutra-k lantzen direnekoa, hauen bidez eskola bakoitza finkatzen bait da; c) 600-1600, sistematizazio filosofiko xehearen garaia; d) 1850-etik honutzakoa, Mendebaldeko filosofi korronteak sartzen hasten direnekoa. XVII. eta XVIII. mendeek hutsunea ematen dute India-ko filosofiaren historian.

India-ko filosofi eskolak *darsana deitzen dira, hau da, ikuspuntuak. Horregatik, bata besteari buruz irekiak eta onarberak dira. Honek berak ematen dio batasuna edo baterakortasuna India-ko filosofi tradizio osoari. India-ko filosofiarentzat Egia handia da: eskola bakoitza Egia horren jatorria eta oinarria aztertzeke eta hori konkretatzeko eta ezagutzeko moduak dira. Garrantzi handiko puntua da hau, indiar filosofigintzako printzipio bezala.

Indiar filosofiaren abiaburua gizakiaren zoritxarrezko bizipena da. Horregatik, horren helburua gizakiaren askapena edo salbamenaren izango da (*Moksa Hinduismoan, *Nirvana Budismoan). Askapena, berriz, muin-muinean, gauza sentikorren itxurazko mundua gainditzea eta horien benetako izanera heletzea da. Honek zera adierazten du: filosofia ez dela objektuaren azterketa hutsa, eta bai filosofoaren beraren izakera eta biziera ere: Filosofoa "*"jakintsua" da, bizitzaren zentzua ulertu eta bizi duena.

Indiar filosofiak gogarte-metodo globala nabarmentzen du. Hau da, gaiak erlijioaren, metafisikaren, psikologiaren, epistemologiaren aldetik batean aztertzen ditu; gauzen alderdi fisikoa, berriz, alde batera uzten du.

Aipaturiko alor horiek ematen dizkigute, baita ere, indiar filosofiaren aztergai nagusiak edo filosofi alorrak. Erdian eta funtsean erlijiozkoa dago India-ko filosofi tradizioan. Jainkoari buruzko ikusmoldeak desberdinak dira eskolen arabera: Izan absolutu, inpersonal eta gogarte-gaia; Jauna eta Izaki gorena, urrutiko eta atzemanezina; Jaun pertsonala, gizakia atxeki dakiokena; Jaun pertsonal eta kretzailea, Nerau edo *atmanen anitzasunarekiko baieztapenarekin batera doana.

Jainkoaren existentziari eta Bera ezagutzeko moduari buruz eztabaida handiak gertatzen dira eskolen artean. Errebelazioaren balioa, teologia naturalaren gertagarritasuna, Jainkoaren existentziarekiko frogak: guzti hauek dira tartean dabiltzan gaiak. Mendebaldar filosofiako gai eta argumentuekin berdintsuak dira sarritan indiar pentsabideak alor honetan.

Beste alor eta aztergai nagusi eta jeneralak indiar filosofian hauek dira: Neraua eta Kontzientzia, Ezagutza eta honi loturiko arazoak (epistemologia), Kausari buruzko azterketa metafisikoa. Baina ez dira kanpoan gelditzen etikaren, politikaren eta estetikaren alorrak ere, aurrekoak bezain sakon eta zabal eztabaidatzen ez badira ere. Izan ere, indiar filosofiaren funtsezko gogartegai formala azken-azkenik askapen-salbamenari dagokiona denez, bestelakoak bigarren mailara pasatzen dira.

Mendebaldetik zihonoan hegelianismoaren eraginez bereziki, XIX. eta gero XX. mendean, erlijiozko eta filosofiazko berrikuntza mugimenduak indartu dira India-n. Inguru honetan aipatzekoak dira Swami Vivekananda, bere Ramakrishna Mission mugimenduari, K.C. Bhattacharya eta Aurobindo Ghose.

Eta laburpen hau bukatzean bereziki nabarmentzekoa da Surendranath Dasgupta (1885-1952), bere A History of Indian Philosophy, bost tomotako liburu gogoangarriagatik.

Paulo Agirrebaltzategi

Indibidualismoa

Eskuarki indibidualismotzat ulertzen da errealtatea indibiduoaz osaturik dagoela azpimarkatzen denean, hau da, errealtatea izaki indibidualez eraturik dagoela defendatzen denean, zeintzu ezin deskonposa bait daitezke beste izaki oinarrikoagoetan. Ikuspuntu honetatik begiratuta, indibidualismoaren eta substantzialismoaren arteko parekidetasunak nahiko nabarmenak dirateke. Dena dela, indibidualismotzat gehiago ulertzen da gizatalde edo gizarte orori gizabanakoa egotzi erazten dion doktrina filosofikoa; gi-